

BIZITZAREN ARBOLA

Y dijo Yabveh Dios: “¡He aquí que el hombre ha venido a ser como uno de nosotros, en cuanto a conocer el bien y el mal!. Ahora, pues, cuidado, no alargue su mano y tome también del arbol de la vida y comiendo de él viva para siempre”. (Biblia de Jerusalem, Génesis, 3, 22).

Gero, Jainkoak esan zuen: “Horra gizakia gutariko bat biburtua, dena ezagutzeko abalmena duelarik. Ez dezala orain bizi-arbolako fruiturik bartu eta, hura janez, betiko bizi” (Has 3,22).

1.- Izkribu hau egitea okurritu zaidanean zalantzan egon naiz, hasteko gaztelaniaz idatz nezakeela pentsatu dut, baina frogak egin izan ditut eta gaztelaniaz dagoeneko ez zait hain ondo ateratzen, ohitua nago euskaraz idazten eta euskara aukeratu dut, beste behin, nire hizkuntza nagusizat. Beste aldetik garbi dut ezen euskara dela nire nazio hizkuntza, eta Xabierko Frantzizkorekin batera nik ere afirma dezaket ezen ni hizkuntzaz euskalduna nai-

zela eta nazioz nafarra naizela, historian zehar Euskal Herriak eduki duen estaturik bakarra Nafarroa izan baita.

Eta hasiera-hasieratik topo egin dut makur bat dagoela euskarazko Biblian, eta bertan, Hasierako liburuan, Jainkoak esaten omen du, nik aukeratutako parrafoan, honako hau: “Horra gizakia gutariko bat bihurtua, dena ezagutzeko ahalmena duelarik”. Eta itzulpen hori ez da hain egokia, eta horregatik aukeratu dut erderazko beste Biblia “ofizial” batetik hartzea nire aipamena, eta bertan esaten da ezen Jainkoak gizona Bere pareko ikusten duela, baina ongiaren eta gaizkiaren zientziari dagokionez. Badago, bistan da, aldea, eta nik hobetsi dut gaztelaniazko Bibliakoa, eta hori ipini dut nire izkribu honen buruan. Ez dakit nola erori den euskarazko itzulpena egin duena errore horretan. Eta tamalez inor ez da egon zehaztasun hori argitzeko, erakutsiz horrela zela den euskararen egoera estudio hauetan. Nahiz eta ni nagoen ezen euskaraz ere badela behar zehatza izatea.

Ez dakit aurretik nola joango diren izkribu honen orriak. Izan ere, okurritu zaidan lehenbizikoa titulua izan delako, eta tituluarekin batera halako pertzepzio argia izkribuaren edukiarena. Baina eduki hori gero lantzen joan behar naiz, eta ez dakit a priori, jakina, nola joango naizen osatzen izkribua. Helburua nire filosofia katolikoa, hau da, unibertsalista, komunikatzea baldin bada, orduan kontuan eduki behar dut testua konprenitzeko modukoa izan behar dela edozein euskaldun kultu batentzat. Eta filosofiako karrera piska bat ezagutzen badu hobe, terminologia zientifikoa bertatik hartua baitut.

2.- Nik estudiatu nuen moduan filosofiako karrera hasten da Grezia klasikoko filosofia aztertzen. Baina nik daukat ezen greziar haiek oso orientalistak zirela, eta gehiago konprenitzen dut nik filosofiaren historia datu horrekin. Oso orientalizatutako herri grekoa bada ere filosofia hitza bera asmatu zuena, erakutsiak dituzten jakintzazko liburuak badaude, adibidez, Biblian bertan. Beraz, filosofiaren hasteak zabaltzen zegoen Oriente hartan daudela esango nuke nik. Eta lehenago izaki arrazional orotan dagoen egiaren bilatzeko joera unibertsal horretan.

Eta estudiantzen da nola lehen filosofoen lan nagusia izan zela pentsamendu mitikoa sustitutzea pentsamendu arrazional batez, pentsamendu logiko batez. Eta hori oso aurrerapen handia da, ez dut dudarik egiten. Nik demostratu nahiko nuke nola Hasierako liburuko historia, hartzen ahal bada ere mitikotzat, berezia dela. Eta berezia da bertako historia konprenitua izan daitekeelako modu logiko huts batean, hau da, materialista estrikto batek ere onartze-ko moduan. Eta beraz, badaiteke abstraitu sustantzialena historia hartatik, elementu mitiko oro kenduz, eta ohartzen gara ezen ongiaren eta gaizkiaren zientzia dela zientzia nagusia, eta halako zientziaren ezagutza osoa dela gure denon faro eztabaidaezina.

Oso termino sinpleetan dago definitua zientzia buru hori, ongiaren eta gaizkiaren zientzia da. Baina definizio hori egiazkoa da eta hori demostratzerik badago, hain zuzen ere absurdoan erortzen da gure zientziaburua bere zientzien tronutik kentzeko saio oro. Eta gogoan dut Nietscheren ahalegin antzua. Aztertzen badugu haren filosofia konturatzen ahal gara ezen borondatearen unibertsal bihurtze bat dela, eta horrek ezinbestean dakar ondorioztatzera gerraren unibertsal bihurtzea, hau da, gaizkiaren unibertsal bihurtzea. Beraz, Nietscheren filosofia gaizkiari emana da. Superatu nahi zuen bere aurrekoa, baina bere aurrean bazeuden definizioak ondo egiazki ondo eginak, ongiaren eta gaizkiaren zientziarena adibidez, eta absurdoan erortzen da egiazki ondo dagoena superatu nahi izatea. Hori begien bistan dago.

Orregatik diot nik ezen fededun izan gabe ere, eszeptiko izan da adibidez, denok onartzen ahal dugula ezen ongiaren eta gaizkiaren zientzia ikasten ari garela, eta historia unibertsala ikaste horren lekuko da. Aurrerapenekin eta atzerapenekin, baina ongiari buruz daude jarriak estudiobide guztiak. Goethek ere badu esaten nola gizona, bere inpulsoaren iluntasunean, ongiari buruz inklinatzen dela. Eta hori da gure barreneko joera nagusia. Erro-erik errore gabiltzan arren, nola nabigatzaile errantea, zeinak bilatzen baitu portu definitibo bat, eta portu definitibo hori, duda barik, amesten duen portu definitibo hori, ezagutza unibertsal bezala ageri zaigun ongia da.

Eta hori materialista eszeptiko batek ere onartzen ahal du logikoena bezala, nahiz eta halako materialistak ez duen ikasten inon portu definitibo hori esistitzen denik ere. Hala ere eskepsis grekezaraz ikertzea da, eta beraz materialista eszeptiko bat ikerlaria da, eta nik animatzen dut ikertzera. Ez badu ere ikusten salbaziorik halakoak ikertzen du zentzu horretan. Nik ez dut batere dudarik egiten horretaz.

3.- Ordenakin hasiz zergatik ez ikertu nola diren zientziaren hasteak?, egin halako ezagutzaren teoria bat?, ezagutza materialaren teoria bat?. Nik badut nirea, eta orain dela ez asko idatzi ere nuen testu labur batean. Hara hemen:

“A.- Edozein objektu materiala hartuta, adibidez, taza bat, nik daukat ezen taza horren definizio *unibertsala* lortzen dela arrazonamendu *induktiboaz*. Izan ere indukzioa da modu lehena ezagutzaren *abenturan*. Ezagutza haste orotan lehenbizi sentidutik igarotzen baita ezagugaia. Eta ez da jo behar platonismora ikasteko nola baden posible taza horren definizio *unibertsala*, zeina baita aristotelismoaren ezagutzaren teorian zientzia ororen hastapen eztabaidaezina. Baina ba al da taza horren definizio *unibertsal* hori objektu material horren definizio *definitiboa*?. Definizio *unibertsal* hori *definitiboa* izango balitz orduan objektu horren materiatasun osoa ezagutuko genuke, eta inoiz ez da hala. Zeren materiatasuna ezagutzea igarotzea den materia horren izaera ezagutzea bezala izango bailitzateke, eta hori jada eskapatu egiten zaigu.

Guzti horretaz hausnarketa batzuk egin nahi ditut datozen le-rootan.

B.- Platonismoan honela teorizatzen da: izanik materiazkoa igarotze etengabea ez dago modurik zientzia horretaz egiteko. Zientzia, nonbait, ezinezkoa da objektu materialetan eta arrazonamendu *induktiboaren* bitartez sekula ez da iristen objektu baten definizio *unibertsalera*. Halako definizio bat egiteko behar da, zientzia egin nahi baldin bada, suposatzea beste mundu bat, objektu inmutableen mundua izango litzatekeena, eta hor kokatzen ahal da, abstraitze lan baten ondorioz, objektu material baten definizio

unibertsala, zeina izango bailitzateke objektu horren forma inmutablea (inteligiblea dena), eta hor jada zientziaren hastea posible da.

Baina nik ez dut beharrezko ikusten beste kosmos bat begitantzea kosmos materialari kentzen zaiolako posibilitate oro bertan zientzia egiteko. Ez ahal da posible objektu material baten definizio *unibertsala* ere lortzea hainbesteko irudimena gastatu gabe?. Definizio hori izango litzateke, operatzeko orduan, zerbait inmutablea, objektu horren izena nominalistek zioten moduan, eta hiztegieta zehazki ere definitua egongo litzateke baldintza objektu bati horrela deitzeke.

Gero, jakina, taza bat *baso* mota bat da, eta taza motak ere, subdefinizioetan definituak, egon daitezke, eta horrek ez du ematen, bai subdefinizioen bidea eta baita definizio generalenaren bidea, ez du ematen amaierarik duenik, eta hiztegi espezializatuek jasoko lituzkete zehaztasun guztiak garai bakoitzean, segun zientzia zenbateraino dagoen garai bakoitzean garatua. Baina, materialismo huts batetik atera gabe, hitz bakoitzak edukiko luke bere definizio *unibertsala*, eta hor jada betea dugu aristotelismoaren ezagutzaren teoriaren funtsak agintzen duena.

Eta nik tazaren adibidea hartu dut, baina har nezakeen *grabitatearen* kontzeptuaren adibidea modu berebean, edo argiaren definizio *unibertsala* bila nezakeen, izanik argia su mota bat, beraz suak definiziorik generalena edukiko luke hortan, izanik argia suaren subdefinizio bat, eta hor jada, aristotelismoaren ezagutzaren teoria aktualizatua edukiko genuke, hor dagoeneko zientzia modernoan egongo ginatke ukatu beharrik gabe nabaria dirudiena, hau da, objektu materialen definizio *unibertsalekin* hasten dela zientzia materialista, eta hori gaur egungo zientifismoa barne hartuta.

Nonbait bereizte hori, sentikorraren eta inteligiblearen artekoa, platonismoan egiten dena, leundua dugu, eta abstraitze prozesu baten bitartez objektu materialaren definizio *unibertsalarekin* lortua dugu objektu horren errepresentatzea inmutabletasun modukoren bat esijitzen duten formalizatzeetan, gero formula matematikoak ere izango direnak.

Moduaren hastea, beraz, beti da *induktiboa*, baina matematikaren izaera ere ikutu egiten dugu, izaera bat zeina baita, klasikoki definitua, parmenideo pitagorikoa, objektu inmutableen inguruko zientzia nagusia, matematika. Eta deskribatu dugu nola edozein objektu material definitua izan daitekeen berorren definizio *unibertsala* lortzeraino, eta hor jada formalizatuak ditugu platonismoan, herakliteismoaren eraginez, ezinezkotzat hartzen dena, mundu materialeko objektuak. Eta definizio *unibertsalak* egin ahal izateak posible egiten du igarotzearen mundu materialekoa zientziaren objektu izan ahal izatea eta hori matematikaraino, zeina baita halako abstraitze lanaren bururatzetik zoragarriena, bertatik posible delako metodo hipotetiko *deduktiboaren* erabiltzea, suposamenak direla orduan gure teorien hasteak.

Baina matematikarekin ez da soilik posible halako metodo hipotetiko *deduktiboa* erabiltzea, matematikekin demostratzerik ere dago nola ezinezkoa den definizio *definitiborik*, zeina izango balitzateke, hasieran erran dugun moduan, objektu material baten, edozein hartuta, objektu material baten izaera ikutzea bezala gure intelektoarekin, eta hortik mundu materialaren izaera ere ezagutzera erraz pasatzea.

Eta materiakzko den edozeren izaera konprenitzeak dakar igarotzearen izaera ere konprenitzea. Baina igarotzea zergatik gertatzen da?, dena mutable delako?, halako mutagarritasun bat antzematen diogulako mundu materialari?, jakina, hori berori da igarotzea berbak erran nahi duena, mutagarritasuna. Eta horrekin batera ekarriak gara *eboluzioaren* teoriara. Eta hemen gaudela galdetzen ahal dugu ea *eboluzioak* ez duen analogiarik infinituaren kontzeptu matematikoarekin. Eta badu analogiarik, eta batz deskubritzen duguna besteaz afirma daiteke. Eta infinituaz dakigu, indukzio matematikoaren bitartez hori bada formalizagarria, beraz infinituaz dakigu ezen edozein dela hartzen dugun zenbakia beti dagoela zenbaki handiagorik, hori infinituaren definizioa ere izan daiteke. Eta ezagutza hori trasladatua izan daiteke *eboluzioaren* teoriara, adibidez *eboluzio* intelektual posible baten aurrean bageunde, ez al litzateke *eboluzio* horren une oro, edozein, beti inperfektua?, ez al legoke beti *eboluzioun*e hobe posiblelerik?.

Eta horrek erran nahi du ezen ez dugula mundu materialaren eza-gutza *definitiborik*, sekula ezin eduki dezakegula halako ezagu-tzarik. Baina horrek ez du kentzen mundu materialaz zientzia egin ahal izatea.

Beraz, indukzio matematikoaz dakigu ezen kosmos materiala bere izaera *definitiboan* misterio zaigula beti kosmos material honetan. Kosmos horren objektuen definizio *definitiboak* ere ezinezko egiten zaizkigu, nahiz eta posible baden objektu material diferenteen definizio *unibertsalak* bururatzea, eta hastea horrela gure zientzia bere oinarri eztaba daezinean, zeina baita definizio *unibertsala*, eta ordenakin jorratuz gero gure zientzia aurreratzen ahal gara beti gehiago. Zeren inoiz ez baitugu, modu honetan erranda, kosmos materialaren definizio *definitiborik*. Azken teoriaren ametsa bete ezina da beti mundu honetan, eta misterio egi-ten zaigu bere funtsean kosmos material hau.

Nik modu honetan ikasten dut posible dela mundu materialaz zientzia egitea, baina herakliteismoari bere egia ere onartzen diot, eta deduzitu egiten dut ezen kosmos materiala, igarotze etengabe bezala definitua (definizio pobrea pobrerik badago, ezer argitzen ez duena), deduzitu egiten dut ezen mundu materiala misterioa zaigula beti, edozein dela gure *eboluziune* posiblea. Eta ez dut, adibidez, mundu materialaren, bere osotasunean hartuta, ez dut, beraz, mundu materialaren definizio *unibertsalik*. Eta ez dut eza-gutzen igarotzea den mundu horren izaera.

C.- Gure ezagutzaren hasiera *induktiboa* da. Kasu partikularretatik hasten baikara ezagutzen, taza partikular bat ezagutzen dugu aurrena, eta gero, abstraituz iristen gara taza baten, edozein tazaren, definizio *unibertsala* bururatzera ere. Eta horretarako ez dugu behar aparatu *imaginatibo* arrarorik, materialismo huts batetik abiatuta nahikoa da objektu materialak definitzeko. Baina definizio *unibertsal* horiek, zientzia egiteko baldintza minimoa betetze-ko nahikoa badira ere, ez dira objektu material diferenteen definizio *definitiboak*, zeren ez baitute objektu horien materialatasunaren ezagutza *unibertsala*, *pribaziogabea* beraz, aditzera ematen. Hain zuzen ere mundu materiala igarotzea delako daude objektu material diferenteak. Guk objektu diferente baten definizio *unibertsala*

egiterik badugu, baina ez dakigu zergatik igarotzen den, zergatik aldatzen den, beste zerbait bihurtu arte, eta hori etengabe gertatzen da kosmos materialean. Igarotzearen funtsa ez dugu egiazki ezagutzen. Eta ezintasun horren zergatia badugu teorizatu, eta demostratu, arestian.

Definizio *unibertsalak* egiterik badago, beraz, baina ezinezkoa dena da objektu material diferenteen *unibertsal* bihurtzea. Eta hori predikatuen logikan estudiatzen da, bereziki batez ere kuantifikatzaile *unibertsala* sartzeko egin behar den operazioan. Badezakegu eduki objektu material baten definizio *unibertsala*, eta horrekin objektu hori badezakegu errepresentatua ipini logika formalean, baina ahaztu ez dugu behar objektu hori materiala dela, eta materiala izanik ez dugu *definitiboki* ezagutzen, eta holaxe gauzak ezin dezakegu esan objektu horretaz edozein objektu dela, materialismo estriktoan hori ezinezkoa da, eta hori da, hain zuzen ere, exijitzen dena kuantifikatzaile *unibertsala* sartzeko.

Ahaztu egiten badugu, abstraituz, objektu horren materiatasuna, orduan posible izan daiteke, hainbat kondizioetan, kuantifikatzaile *unibertsala* sartzea, eta objektu parmenideo pitagorikoetan, objektu matematikoetan, hala nola, triangeluetan, kuantifikatzaile *unibertsala* sartzea perfektua daiteke. Baina posible den arren objektu material baten definizio *unibertsala*, ezinezkoa da objektu material horren ezagutza *unibertsala*, zeren nola dakigu edozein objektu material dela?. Eta hor ahalko genuke, hori jakinik, ezagutzea *unibertsalki* objektu material hori. Baina halako ezagutza eskapatu egiten zaigu beti kosmos honetan. Eta hori daiteke indukzioaren problema funtsezkoa, eta horregatik esaten da, generalizatuz ikasi hori, nola indukzioaren bitartez ezinezkoa den kosmos materialaren ezauguera *unibertsalik*. Ezta kosmos material horren objektu diferenteen ezauguera osoa ere! (ezinezkotasun hori da, hain zuzen ere, ekartzen gaituena ondorioztatzera gure ezin funtsezkoa).

Eta hor dugu herakliteismoaren arrazoi hori (ezen ez arrazoi guztiak, zeren gerra, adibidez, ezin baita *unibertsal* bihurtu) platonismoan baino hobeto aditzera emanda. Platonikoek ezinezkoa zekusaten kosmos materialaz zientzia posiblerik. Guk badugu ikasten ezen posible dela eta egiazki badela egiten. Baina herakli-

teismoaren arrazoia gaizki formulatu zuten platonikoek. Ezinezkoa dena da materiaren definiziotzat har daitekeen igarotzearen izaera ezagutzea, hau da, ezinezkoa da kosmos material honen definizio *unibertsalik*, zeina *definitiboa* izango litzatekeen, eta ondorioz beti zaigu misterio bere funtsean mundu hau.

Eta hortik ondorioztatzen ahal dugu ezen inoiz ezinezkoa zaigula mundu hau gobernatzea nahiko genukeen modu perfektuan, mundu material hau gobernatzea falazia barik (garbiro esanda), zeren ez baitugu *definitiboki* ezagutzen, eta hortik gara gu, adibidez, hilkorrak, ez dugulako ezagutzen gure izaera materiala erabat, hau da, ez dugu gure izaera materialaren ezagutza *unibertsalik*.

Eta gaixotasunek eta heriotzak denok kezkatzen gaituzte. Genezazioa plazenteroa baldin bada, eta horrek baldin badakar kontrako bidea ahaztea ere, beti iristen zaigu horretaz kezkatzeko ordurik.”

Kurtsibetan daude termino batzuk, hain zuzen ere hori da nik proposamen orotografiko bat dudalako eta horretara presentatzea otu zitzaidalako orduan. Baina hori alde bat lagata, ondo konprenitua dagoelakoan, nik hor nire ezagutzaren teoria garatzen dut testu labur batean, zientzia ororen hastapenak nola egituratzen diren jakin nahian, eta materialismo estrikto batetik alde egin gabe. Hain zuzen ere nik nire bidaia teorikoa egin nahi dut materialista arrazionalistekin batera, materialista ilustratuekin, arrazoi garbiaren teorikoekin. Ateoak dira historikoki, egia da, baina badut esan ezen ateoek ere badutela halako joera primario bat ezagutza unibertsala den ongiari buruz, eta ongia ezin konprenitu daiteke egiazkoa ez bada, hau da, faltsua dena ezin izan daiteke ongiaren partekoa, eta beraz egiaren bilatze arrazionalak bat egiten gaitu denok. Eta horregatik bidea elkarrekin egin ahal izatea. Alderik nagusia da eszeptizismoa, hau da, ateo batek ez du ikasten, nahi duen arren, helmuga iristea posible denik. Helmuga halakoarentzat teorizazio huts bat besterik ez da, teorizazio bat beste errealiterik ez duena. Baina teorizazio hutsa bazaio ere ezin ukatu dezake ezen bere ahaleginak haruntza bideratuak direla ezinbestean, behintzat egiaren bilatzaile zintzoa bada, filosofo eta zientifiko benetakoa.

4.- Nonbait kosmos honetan ezagutza unibertsala zientzia enpiriko ororen gainetik dago, eta beraz misterio zaigu beti, edozein dela gure eboluzio intelektualaren unea. Eta hori berori zioen argitasun osoz Kantek. Baina Kantek ezagutza unibertsalaz oso teorizazio interesgarriak ditu. Ez du teorizazio egiazkoa besterik ikasten halako ezagutzan, beste esistentziarik ez dio ematen, baina misterio horretaz definizio eta ondorio erlazio zoragarriak ditu, zeintzuek oso erabilgarriak diren darabilzkigun ikerketetan. Egiazki ondo teorizatu zuen kosmos materialaren ezagutza unibertsalaz, bertan ezer ikasi ez zuen arren. Eta horregatik bakarrik bada ere nik daukat ezen Kant filosofiaren historian leku berezi batean dagoela, bera baino ospatuagoak diren beste falaziagin askoren aurretik.

5.- Egiazki ondo egindako demostrazio baten bitartez ikasi dugu ezinezkoa dela kosmos material honetan kosmos material honen ezaguera unibertsalik lortu. Baina historia unibertsalean barena badaude historialari bereziki atxikiak egiari, zeren gaitz larritzat baitituzte gezurra eta testimonio faltsua, eta historialari horiek seinaleak deskribatzen dituzte. Jesus izan omen zen gainera bakarra berak egiten zituena, eta mirari bezala izentatuak dira.

Miraria klasikoki definitua izan da fenomeno bat bezala zientziak ezin argitu duena. Nik hori ontzat jotzen dut, eta borobildu ere egiten dut definizio hori. Miraria sekula ezin argitu dezake zientziak, edozein dela bere eboluzio unea. Nolako ezagutzatik dator orduan miraria?. Kosmos material honetako zientziatik ez, hori garbi dago, ikasia dugu nola ezinezkoa den kosmos honetan kosmos honen ezagutza unibertsalik, eta hortik beti misterio egitea mundu materialaren ezagutza, hain zuzen ere, ez dugu haren definizio unibertsalik, zientzia egiten ahal dugun arren. Eta hain zuzen ere, kosmos material honen ezagutza unibertsal batetik soilik da posible miraria, zeinak seinalatzen baitigu beste kosmos goragoko bat.

Kosmos material honen ezagutza unibertsal batetik soilik da posible, adibidez, indukzio perfektu bat. Eta indukzio perfektu batean a priori determinatu egiten da zehaztasun absolutuaz erabakitakoa. Beraz, ezagutza unibertsala aprioristikoa da. Halako

ezagutzatik bakarrik da posible bururatzea indukzio perfektu bat. Hori erraz konprenitzen ahal da.

Gero Kantek badu teorizatzen ezagutza unibertsalaz eta halako ezagutza ezinezkotik judizio sintetikoak apriori egiten ahal liratekeela dio, baina teorizazio hutsa denez, besterik ez duena, ezinezkoak dira, harendako, halako judizio sintetikoak apriori egitea mundu materialean. Behar den ezagutza lortu ezina baita absolutuki mundu honetan. Esperientzia material orotik gain baitago ezagutza unibertsala, eta beraz misterio zaigu gure eboluzio une orotan, hau da, beti.

Baina objektu parmenideo pitagorikoetan ikertuz bada posible begintatzea zer den judizio sintetiko apriori bat. Eta badago kasu bat paradigmaticoa dena. Kasu hori triangeluarena da. Modu induktibo batez dakigu, egiazko zientziarekin, ezen edozein triangeluk bere barruko angeluen suman bi rektu egiten dituela. Eta hori predikatuen logikan bada sinbolizagarria, eta kuantifikatzaile unibertsala sartzen dugu hor batere arazorik gabe, falazia barik. Eta triangeluekin baditugu une oro judizio sintetikoak apriori egiten, beti dakigulako egia unibertsal hori.

Mundu materiala, ostera, igarotzea da, eta halako mundu batean judizio sintetiko apriori bat egin ahal izateko mundu horren igarotzearen izaera ezagutzea *conditio sine qua non* da mutable denaren barrenean judizio sintetiko apriori bat egiteko. Eta horrek esan nahi du mundu mutable hau gobernatzeko ahal dela halako ezagutzatik. Mirariak hori erakusten digu. Eta nik definitzen dut miraria judizio sintetiko apriori bat bezala, ezagutza unibertsala suposatzen zaiola egiten duenari, Jesusi, eta ezagutza hori ez dator mundu honetatik, zeren mundu honetako zientzia gorena ere, beti perfektionagarria, sekula ez baita iristen halako ezagutzara. Hain zuzen ere beti perfektionagarria delako ez da inoiz ezagutza materiala unibertsala.

Gero nik eranstean dut ezen gaizkiaren kausu orokorra pribazioa dela, eta definizioz ezagutza unibertsala privaziogabea da, beraz misterioa da kosmos honetan halako ezagutza, baina misterio horrek bere baitan ongiaren muina gordetzen du, ezagutza

privaziogabea da, hau da, misterio santu baten aurrean gaude. Etika ororen sorlekuaz nonbait teorizatzen ari gara. Ongiaren eta gaizkairen zientzian barrena ari gara ikertzen, eta ongiaren funtsa ere deskubritu dugu, ezagutza unibertsala.

Ezagutu nahi duen inork ez diezadala esan ez duela hori bilatzen, izan eszeptiko ala ez. Hain zuzen ere hor dago, ematen du, bizitzaren sekretua ere gordea, eta hori Jesusek aditzera eman zuen guk ikertzen ditugun seinale ugariren bitartez. Eta iruditzen zait bizitzaren arbolaren fruitua ikutu egiten dudala, teorikoki jakina, eta lehenbizi, ikasten dut, bide etiko sakon bat egin behar dudala hara heldu aurretik. Eta ongia da bilatzen dudana denen buru, ezagutza unibertsalaren muina, zeina misterio santu baten forman ageri zaidan nire teorizazioetan. Asko aurreratu arren inoiz lortu ezina mundu honetan (modu inefable infalible batean demostratu dut hori).

6.- Eta modu simple honekin nire baitan filosofia katolikoa denen buru ikasten dut dagoela, eta tarte infinituaz gainera. Edozein dela hartzen dugun zientzia, edo filosofia, badakigu unibertsaltasunera ez dela iristen. Hain zuzen ere ezagutza unibertsala zientzia enpiriko ororen gainetik dagoelako, eta gure zientzia oro obserbazio enpirikoetan dago oinarrituta, gero hipotesien bitartez metodo deduktiboa erabilgarri egiten bazaigu ere. Baina oinarria indukzioa da. Eta hortik ezinezkoa da iristea kosmos materialaren definizio unibertsalik, eta ondorioz kosmos materiala, izan fededun edo ez, misterio zaigu gure eboluzio une orotan, beti mundu honetan. Baina misterio hori, nola ezagutza unibertsala pribaziogabea den, misterio hori santua da, eta halako misterio santutik filosofo katolikoak begiraten dio zientzia humanoari, eta baita filosofiaren historiari, eta egia atxikienak ere osatu egiten ditu, jasoz duda izpirik gabe nabigatzaile erranteari portu definitiboa zaion ezagutza unibertsal horretaraino, misterioa bada ere, misterio santua, hor dago egiazko faroa denondako. Eta nik ditut go-goan materialista estrikoak, eszeptikoak direlako, seinaleen berri duten arren. Eta ez dute federik halako portu definitibora helduko garenik inoiz.

7.- Gainbegiratu bat botatzen badiogu filosofiaren historiari ikasten ahal dugu oso derrotero dekadenteak hartu dituela, aurre- rapenak izan diren arren bide materialista hutsak hartu ditu filosofiak, eta falaziagin batzuen teorizazioak dira gaur egun oraindik ospatuak, eta nik behin entzun nuen Donostiara etorri zela munduko filosoforik handiena, eta eszeptikoa zen, eta nagusitasun handiz erantzuten omen zien denei. Nik, oster, filosofiaren historiari beste bide bat aurkitu diot, eta erabiliz terminologia filosofiko modernoa aplikatu egin naiz san Juanek deitzen zituen seinaleen estudioari, eta hortik filosofiari eroria den zulo ilunetik ateratzeko modua seinalatzen diot, egiaren argitara jaiki dadin. Hori baita, egia, filosofiaren tarea bakar nagusia: falaziabideak alde batera lagata egiarekin asmatzea. Eta estudio filosofikoak beste seriotasun bat hartzen dute modu horretan. Denak daude ezagutza unibertsal horren azpian, misterio santu horren argitan daitezke estudio guztiak osatuak izan, garbituak eta probetxuzkoak bihurtu. Hau da, galbideetatik salbatuak.

8.- Eta modu mitologiko samar batean katolikook ezagutzen dugun bizitzaren arbola, zeinaren fruitutik ez baitugu jan, zentratu gaitezen berririo, orain artean egindako bidea errepatatuz, ongiaren eta gaizkiaren zientziaren arbolan. Hor badugu konektatze bezalako bat egiterik materialista estriktoekin, mitotik logora igarotze perfektu bat. Zeren denok baitugu onartzen nola gure helburu inefablea falaziagabeko ezagutza unibertsala dela, zeina izanik pribaziogabea definizioz, ezagutza santua baita, ongiaren izaeraz jantzia. Eta denok nahi dugu hori, izan eszeptiko edo fededun. Eta horrek, ezagutza konpletua izanik, konprenitzen du bere baitan kosmos material honetako guztia, beraz bizitza ere konprenitzen du, eta bizitza konprenitzen duenak, bistan dago, bizitza konpletuagoa du, eta bizitzaz teorizatzen den guztia ere badu, hala nola principium individuationis delakoa, askatasuna, osasuna, jakituria, ahalmena, eta hola. Eta hori, nola eduki baino gehiago konprenitzen duen, hori du mailarik perfektuenean, eta fededun katolikook Jainko biziak hitz egiten dugu, eta nik egiten dudan teorizazioak ezagutza unibertsalaren izaeraz demostrazio bezalakoa da horrena. Baina katolikook materialista ere bagara,

izaeraz materia garala esan daiteke, eta materialista garen neurrian konprenitzen dugu materialista estriktoen kritika, zeren demostratua baitago, eta nik ere lan honetan hola laga dut demostratua, ezagutza unibertsala iritsi ezina dela kosmos materialean. Ezagutza hori nonbait iristen ahal da ongiaren eta gaizkiaren zientzia osoro ezagutzera ailegatzean, baina nola mundu honetan hori ezinezkoa den fededunok diogu ezen hori Jainkoaren grazia dela, ematen zaiena zeruan sartzen direnei. Eta zeruan sartzen denak jada badaki Eurek hainbat, ongiaren eta gaizkiaren zientziari dagokionez, beraz ezagutza unibertsala, mundu material honetako ezagutza definitiboa izango litzatekeena, badu iristen zeruan sartzen denak, eta hortik bizitzaren konprenitzea, eta beraz nolabait biziduna da guk ulertzen ez dugun modu misteriotsuan, zeren misterioa baita ezagutza hori mundu honetan, baina misterio hori santua da ezinbestez, zeren ezagutza pribaziogabea baita ezagutza unibertsala. Beraz, etikaren bide estetik igaro behar da derri-gorreetan halako grazia eskuratzeko. Hori diogu behintzat fededun katolikook, eta Jesusek bazuen esan nola salbazioaren bidea bakarra dela eta estua, eta gutxik asmatzen dutela bide hortatik, falaziazko bideetatik joaten baita gehiengoa, filosofiaren historian ikasten den moduan. Eta fedea ezinbestekoa da bide hortatik abiatzeko, materialista estrikto batendako ezinezkoa baita, nahikoa egiazki ondo demostratua laga dugun bezala, ezagutza unibertsala iristea. Fededunari bezala faroarena egiten badio ere.

9.- Filosofo katolikook seinaleak estudiantuz deskubritzen dugu ezagutza unibertsal horren esistentzia erreala. Faro hori badute teorizatzen materialista estriktoek ere baina eszeptikoak dira, ikertu ere ikertu ahal da nahi beste, baina kosmos honetan ezin iritsi daiteke. Eta katolikook horrekin ados gaude, misterio santua da, beste munduari dagokiona, baina beste mundu hori, Zeruetao Erresuma bezala ezagutua, egiazki esistentetzat dugu, eta faroa benetakoa dela diogu.

Filosofiak garai bakoitzeko zientzien egoera aztertzen du, modu ordenatuan, beti ere falaziazkoa desestimatuz, egia baita kriterioa. Eta materialista estriktoak, edozein dela garaia, alderatzen baldin badu zientzien aurrerapena helburu maximoarekin, zeina

baita ezagutza unibertsala, orduan ondorioztatu behar du bere ezagutza pribazioz josia dela, hutsunez eta faltaz ere josia, eta Goetheren Fausto ikertzaile haren moduan etsipenak jota gaizkiari buruz erori daiteke. Fededunak oster, mundu honetan ez badu ikasten ere ezagutza unibertsalik, badu teorizatzen, ondorio erlazio batzuen bitartez, badela ezagutza unibertsal hori beste munduan (Jesussek badio nola bere Erresuma ez dela mundu honetako), eta faroa egiazki errealtzat hartzen du, eta etsipenean jaustea zailagoa du. Eta fededun katolikoa lotu egiten da materialista estriktoaren modura zientzien estudioari, eta hor aurkitzen duen etsipena osatu egiten du, zeren ezagutza unibertsal hortatik, nolabait esanda, badu ezagutzen etika bat, iturri sobrenatural hortatik isuria, errevelatua, eta hor ditu Moises eta profetak, hor du Jesus, eta hor du Eliza katolikoaren eskubide kanonigoa, etika bat menderen mendetan osatzen joan dena, eta aktualizatzen, eta hor du, etika sobrenaturalista horretan, zeri lotu. Eta hor osatua du bere etsipen zientifikoa ezagutza unibertsalari buruz, eszeptikoarekin konpartitzen duena. Eta hor espero du Jainkoaren grazia, zeina izango litzatekeen ezagutza unibertsal hori, ongiaren eta gaizkiaren zientziaren ezagutza osoa eskuratzea, eta alde hortatik Jainkoaren pare ere egotea. Hori, jakina, Zeruetako Erresuman sartzean, non soilik santuak sartzen ahal diren.

Eta ez da hain eroangaitza Jainkoaren legea, zeren Harek deitzen baikaitu perfekziora, eta hori da, perfekzio hori, filosofiaren helburu perennea, eztabaidaezina, santuak lortzen duena Jainkoaren graziaz, berez ezinezkoa baitzaigu halakorik mundu honetan, hori badugu ere denok helburu barren barrenekoa. Eta horregatik esan daiteke ezen mundu honetan ez dagoela santurik, hori ikus-teko gauza da.

10.- Niretzat ez da batere gaitza materialismoa osatzea fede apur batekin. Demostrazioak eginak ditut, eta horiek kontuan edukita, materialismoa bada osatzen ahal. Eta materialistak ez du ezer galtzen fededun egitean. Osatu egiten du bere filosofia, eta faroa, ezagutza unibertsalaren esistentzia, filosofiaren helburu nagusia, gorena, ez du zertan gizonak ikusi behar teorizazio huts bezala, eta bai egiazko portu inefable bat bezala. Denok konfor-

me gaude ezen mundu honetan, kosmos honetan, ez dagoela. Baina, nik galdetzen diot materialista estriktoari, demostratzen badut ezen ezagutza unibertzala badela egiazki, ez al da hortik ondorioztatzen ezen badagoela beste kosmos bat?, zergatik ez da kosmos hori izan behar Zeruetako Erresuma?. Zerbait sobrenaturala badagoela behintzat ezin ukatu daiteke. Eta hortik fede apur batekin ikertzea eskatuko nioke nik materialista estriktoari. Zeren fedea baditzake oinarri logikoak eduki. Hori izan da, hain zuzen ere, nire lanaren funtsa, oinarri logikoak ematea fedeari, nire fedea arrazoitzea. Eskasa bada ere fedea, baina fede piska bat, ongaiaren bidetik joan gaitezen, egiaren bidetik, seguruena dena du da barik. Falaziakoa beti desestimatu, aurkitu bezain pronto, estropezu egin ez dezagun.

11.- Komentario aunitz egiten ahal dira guzti honetaz, baina funtsezkoena badut komentatu. Osteango komentarioak errazago egiten ahal dira. Eta nik lantxo honekin nire filosofia osatua eta konpletatua ikusten dut. Eta hurreratu naiz materialista estriktoari, eta mito monoteista bere barreneko zientifismoarekin konektatu dut, nonbait logikaren hizkuntzan hitz egin diot, gure arteko tartea gutxitzeko, mito monoteista logikara pasatu dut, analizatu dut eta hor aurkitu dut denon barreneko borondate funtsezkoa, eta horregatik, ahal dela, bere materialismoa osatu dezan idatzi dut lantxo hau. Fedearekin. Arrazoitutako fedearekin, berak exijitzen duen moduan.

Roman Garmendia